

# martxoaren 8a emakumeen nazioarteko eguna

berria  
2010eko martxoaren 7a, igandea  
testuak: Nerea Pikabea

## MENDE OSO BAT ALDARRIKA

Mende oso bat igaro da Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen hasi zenetik. Emakumearen eskubideak urratu egiten dira oraindik, eta aurten ere herritarrak kalera aterako dira emakumeen eskubideak aldarrikatzera. Euskal sindikatu gehienek ekimen bateratua egingo dute aurten.

**M**artxoaren 8an egiten da urtero Emakumeen Nazioarteko Eguna. XIX. mendearan amaierako hainbat aldarrikapen egun horren aitzindari izan ziren. XIX. mendearan bukaeraren sortu zen emakumearen alde egun bat egiteko ideia, iraultza industrialaren garaian. Lehenago ugari izan ziren emakumeen eskubideak aldarrikatzen zituzten egunak, baina XX. mendean hartu zuen indarra, nazioarteko ezkerreko hainbat erakunde egindako aldarrikapenekin.

Egun hori zehazki noiztik ospatzen den ez dago argi. Hala ere, Danimarkan Emakume Sozialisten Batzarra egin zuten 1910ean, eta hor erabaki zuten batzar horretako ordezkariak Emakume Sozialistaren Eguna ospatu behar zutela euren herrialdeetan.

Kontuak kontu, Nazio Batuen Erakundeak 1975ean onartu zuen Emakumeen Nazioarteko Eguna. Geroztik urtero ospatzen da mundu osoan emakumeen eskubideak eskatzen dituen egun hori.

Aurten, elkarrekin ospatuko dute Emakumeen Nazioarteko Eguna Euskal Herriko sindikatu gehienek. Martxoaren 8an ekimen bateratua egingo dute ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek. Manifestazioak egingo

**«Emakumeongan aparteko ondorioak izango dituzte lan eta pentsioen erreformek»**

**JONE BENGOTXEA**  
ELA sindikatuko  
genero politiken arduraduna

**«Krisiaren aurretik ere lan mundu prekario batean egon gara emakumeak»**

**ZALOA IBEAS**  
LAB sindikatuko  
emakume arloko arduraduna

dituzte Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean, eguerdian hasita. Manifestazioetako goiburua hauxe izango da: *Prekariatatearen aurrian emakumeok eredu berri bat*. Emakumeentzako bizi eta lan baldintza duinak eskatuko dituzte eta prekariatatea gaitzetsiko dute.

### Aldarrikapenak

Hauexek dira aipatutako sindikatuen aldarrikapen eta salaketa nagusiak:

- Krisiak gogor astindu ditu emakumeak. Sektore feminizatuko eta ezkutukoak astindu ditu gehienbat, baina baita zerbitzuen, arretaren eta zaintzaren sektoreak ere.

- Sindikatuok ez daude ados krisiari aurre egiteko proposatzen ari diren neurriekin. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna areagotu egiten dute.

- Inbertsio publikoa krisian dauden sektore ekonomikoetara bideratzen ari dira, inbertsio soziala egin beharrean. Bazterrean utzi dira, beraz, hezkuntza, osasuna, zaintza eta gizarte babesa.

- Lan eta pentsioen erreformak salatu nahi dituzte. Oraindik ez da erabaki zehatzik atera, baina lan eta gizarte eskubideetan atzerakada nabarmena izango da, sindikatuen iritziz. Pentsio murriztuak, lanaldi partzialeko kontratuak sustatuko dira, malgutasuna, lan bizi luza, eta abar. Joera horrek berdintasun egoeratik aldentu egiten ditu emakumeak.

- Beldurra eta krisiaren aitzakia erabiltzen dituzte, lorpen eta berme sozialetan atzera egiteko. Horregatik, beharrezkoa da emakumeek esparru guztietan modu kolektiboan antolatzea, baita sindikatuen esparruan ere. Horrela, eskubide eta aukera berdintasunerantz urratsak egin ahal izan go dira.

Sindikatuaren ekimen bateratu horretan, prekariatatearen eta eredu berri baten ingurukoak dira aldarrikapen nagusiak.

Krisia dela eta, lan eta pentsioen erreformak eztabaidagai nagusi dira egunotan. «Aipatzen ari diren neurri horiek aurrera egiten badute, emakumeongan aparteko ondorioak izango dituzte erreforma horiek», dio Jone Bengoetxek, ELA sindikatuko genero politi-



**MANIFESTAZIOA.** Iazko Emakumeen Nazioarteko Egunean Bilbon egindako manifestazioa. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

ken arduradunak. «Edukirik gabeko berdintasun formal baten alde egiten jarraitzen dute. Erreformak Espainiako Berdintasun Legea gauzatzen jarraituko duela esaten badu ere, horretarako proposatzen ari diren neurriak kontrako norabidean doaz».

LAB sindikatuko emakume arloko arduradun Zaloea Ibeasek egungo krisi ekonomikoa izan du hizpide, eta hauxe azpimarratu du. «Krisiaren aurretik ere lan mundu prekario batean egon gara emakumeak, nahiz eta lan merkaturan sartzea lortu dugun».

## Eginez bidea, etorkizun hobea



Arabako Lurralde Historikoen Agintegiak utzitako argazkia  
Francisco Casado, 1928tik  
Argazkilaria: Gerardo López de Guereñu.



**Berdintasuna eraikitzen**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava  
www.aleva.net

MARIA SILVESTRE » EMAKUNDEKO ZUZENDARIA

# «Gizonek eta emakumeek denbora banatu behar dute esparru pribatu eta publikoan»

5. Berdintasun Plana egitea da Emakundek urte honetarako dituen lehentasunetako bat

Emakundek denboraren erabilerrari buruz hausnartzeko kanpaina abiatu du Emakumeen Nazioarteko Egunari begira.

**Denboraren erabileran berdintasuna aldarrikatu nahi duzue aurten. Zein da arazoa?**

Geuretzat, jarduera sozialerako, familiarentzat eta lanerako erabiltzen dugun denboran desorekak daude; esparru pribatuan eta publikoan desberdintasunak daude denboraren erabileran. Etxeko lanetan eta zaintzan emakumeek eta gizonek ez dute denbora bera ematen, eta horrek ondorio larriak dakartzela emakumeen posiziorako, autonomia ekonomikorako, bizi eta osasun baldintzetarako. Berdintasuna lortzeko aurrerapausoak geldiarazi egiten ditu; besteak beste, emakumeek aisialdirako duten denbora murriztu egiten da.

**Esparru publikoan, zer ondorio ditu horrek denboraren erabilerran?**

Emakumeek zenbat eta denbora gehiago eman etxeko lanetan, gutxiago ikusiko ditugu esparru publikoan. Bi esparruen arteko oreka beharrezkoa da. Gizonek eta emakumeek banatu egin behar dute denbora esparru pribatuan zein publikoan.

**Zer proposatzen duzue hori konpontzeko?**

Gizonek eta emakumeek esparru pribatuko ardurak bien artean eraman behar dituzte. Beraz, gizonezkoentzat ere beharrezkoak izan behar dute kontziliazio neurriak; hori ez da gertatzen gaur egun, neurri horiek gehienetan emakumeek hartzen baitituzte. Emakumeek bakarrik bateratzen badituzte lana eta familia, soldaten arteko aldea handitu egiten da, emakumeek lanordu gutxiago egiten baitituzte.

**Beraz, esan al daiteke gizarte osoari dagokiola horretaz jabetzea?**

Ardura biena da, eta gizarteak ideia hori bultzatu behar du; ordutegi bateragarriak ezarri behar ditu eta egitura sozio-komunitarioak eta ekonomikoak egokitu egin behar dira.

**Eustat erakundeak emandako datuen arabera, emakumeek eta gizonek etxeko lanetan ematen duten ordu kopurua ez da aldatu azken sei urteotan. Gizarte berdintasunaren alde baldin badago gero eta gehiago, nolatan hor ez da aldaketarik izan?**

Gauzak oso poliki aldatzen dira. Izan ere, gure neskatoak eta mutilkoak oso portaera espektatiba desberdinekin hezten eta sozializatzen ari gara. Estereotipo sexistetan oinarritutako emakumezkoen eta gizonezkoen rolak



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

ditugu; hor sortzen da aukeren desberdintasuna.

**Aukeren desberdintasun hori zertan egiten dugu?**

Orain dela gutxi, azaroaren 25eko kanpainen Maitena Monroyk esan zuen: neska bat ostiral gauean ateratzera doanean kontuz ibiltzeko esaten diogu; belduz, alerta eta prebentzioa sortzen ari gara; mutilari, berriz, ongi pasatzeko esaten diogu; konfiantza eta autoestimua eraikitzen ari gara.

Portaera espektatiba desberdin horiek portaera sexistak eta desberdintasunezkoak sortzen dituzte argi eta garbi. Beraz, ezin gara harritu bikote batean etxeko ardurak emakumeak hartzen duenean. Beste adibide bat: nork egiten du erosketak? Nork erabakitzen du noiz eraman behar diren gortinak garbitzera edo noiz aldatu behar diren toallak?

**Ze egiteko izan behar dute gizonek gai horretan?**

Gizonezkoek eta emakumezkoek onartu behar dute berdintasunaren aldeko borroka guztiena dela. Zenbat eta hobeto konturatu desberdintasunez, orduan eta zilegitasun sozial eta politikoa handiago izango dute desberdintasun hori zuzentzeko abian jarritako neurriak.

**Ze beste lehentasun ditu Emakundek urte honetarako?**

5. Berdintasun Plana egitea da legegaldi osorako gure lehentasunetako bat. Administrazio publikoak aurrera eraman behar dituen berdintasun politiketan lehentasunak zein diren jasotzen da bertan. Gobernu kontseiluak martxo honetan onartuko du ziurtena. Horretarako, trebakuntza bultzatu nahi dugu, eta gobernuari tresnak eman nahi dizkiogu; eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatu nahi dugu.

NAFARROAKO BERDINTASUN INSTITUTUA

**Arte eszenikoetako emakumeen lana azpimarratuz**

Nafarroako Berdintasun Institutuak martxoaren 8ari begira zabalduko duen mezua izan du hizpide Sara Ibarrola zuzendaria: «Martxoaren 8ari begira, gizarte elkarrekin dira protagonistak, eta elkarrekin erakunde horiek antolatzen dituzten ekimenetan parte hartzen dugu. Berdintasun arloan urte osoan egiten dugun lanari ematen diogu garrantzia. Hala ere, urterotik iragarkiren bat kalera eraten dugu. Aurten, Emakume Sortzaileen programaren barruan, arte eszenikoetan aritu diren emakumeak nabarmenduko ditugu».

XVII. mendetik gaur arteko emakume nafarrak. «Horieta-ko batzuk hilda daude. Titiritero bezala lan egindako emakumeak, aktoreak, komikoak eta abar». Besteak beste, Maria Antonia de Soto, Remigia Etxarren, Josefa Maria de Sesma eta Teresa de Alvarez. «Euren garai historikoak ezkatututa eduki dituen emakumeak dira, eta zoko ilun horretatik atera nahi ditugu, eurek egindako lana goraitzeko, horrela geurea ere goraitzeko baitugu».

Nafarroako Berdintasunerako I. Plana duela lau urte abian jarri zuten, eta amaitzean da. Plan horretatik zein ondorio atera daitezkeen galdetu diogu Sara Ibarrolari. «Erkidego honek berdintasunaren arloan egin duen lanerako lehen plana da. Genero desberdintasunak eta diskriminazioa adierazteko borondate politikoa agertu den lehenaldia da. Egutegi bat finkatu zen eta datorren urtean neurtuko dugu plan horren eragina».

MARTXOAK 8 • EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gizonak eta emakumeak

# berdinetik berdinerara

www.aralar.net aralar

Martxoak 8, emakume langileen nazioarteko eguna

# emakumeok eredu ekonomiko eta sozial berri baten alde

Martxoaren 8an eta emakumeen mundu martxan mobiliza zaitetz!

LAB





ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

**MIREN ARANGUREN**,  
BILGUNE FEMINISTAKO KIDEA

## «Patriarkatua errotik aldatu behar dugu»

Eremu guztietan parekidetasuna lortzeaz gain, feminismoaren alde lan egitea eta beste esparruetan eragitea dira Bilgune Feministaren helburuak. Aurten, Emakumeen Mundu Martxan jarri ditu indarrak erakundeak.

**Zein izango da Bilgune Feministaren aldarrikapena martxoaren 8an?**

Aurten Emakumeen Mundu Martxa egingo da berriro ere, eta mundu mailako ekimen horrekin bat egin dugu. Euskal Herrian lau aldarrikapen nagusi dauzkagu, mundu mailakoak gure herriko errealitatera egokitu ondoren. Lehenik, emakumeok pairatzen dugun indarkeria sexistaren kontrako oihu ozena, izan ere, dagoneko hiru emakume erail dituzte Euskal Herrian. Bigarrenik, prekaritatearen kontrakoa, krisiari buruz hitz egiten ari garen honetan emakumeak ahaztuenak izan garelako. Hirugarrenik, sexu eta ugalketa eskubideen aldekoa, duela gutxi estatu espainolean onartu den abortuaren legea ez baita nahikoa. Azkenik, elikadura subiranotasuna, herri honetan ditugun baliabideekin aurrera egin nahi dugulako. Aldarrikapen horiekin guztiekin bat egingo dugu, eta indarrez aldarrikatuko ditugu martxoaren 8an.

**Zein mezu zuzendu nahi diezue emakumeei? Eta gizonezkoiei? Nola landu ditzakete gai horiek?**

Emakumeok gure eskubideen alde lan egiten jarraitu behar dugula argi dago. Nahiz eta itxurazko berdintasun batean bizi, argi izan behar dugu itxurakeria besterik ez dela eta parekidetasunean bizitzeko oraindik bide luzea gelditzen

zaigula. Patriarkatua errotik aldatu behar dugu, pertsona guztiek gure ezberdintasunak onartuta, harreman askeetan bizi ahal izateko, bidezko jendarte batean bizitzeko, eta Euskal Herri feminista bat eraikitzeko. Dena den, bide hori ezin dugu emakumeok bakarrik egin. Patriarkatuarekin amaitu nahi dugun feminista guztioi dagokigu borroka hori.

**Instituzioetako politikek, indarrean dauden legediek... zer nola-ko ekarpena egiten diete emakumeen berdintasun eskubideei?**

Tolosako topaketetan gai hori ere izan genuen aztergai. Instituzioetatik garatzen diren politikek gure praktikan asko eragiten dute. Garrantzitsutzat jo genuen genero politikak eta politika feministak ezberdintzea, baita egun instituzioetan dauden aukerak, hutsuneak eta oztopoak identifikatzea ere. Min handia egin dute azken urteetan egin diren berdintasun politika guztiek, berdintasunean bizi garelako irudikatu nahi izan baitute.

# EMAKUMEEN MARTXA

Emakumeen Mundu Martxa egingo da mundu osoan, martxoaren 8an hasi eta urrirra bitartean. Ekimen ugari egingo da munduko hainbat txokotan.

**E**uskal Herrian martxoaren 8tik 13ra bitartean egingo da Emakumeen Mundu Martxa, eta furgoneta bat ibiliko da herri herri emakumeen eskubideak aldarrikatzen.

Emakumeen Mundu Martxa nazioarte mailako mugimendua da. Emakume taldeek eta talde feministek osatzen dute, eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta pobreziaaren kontra lan egiten du. Mundu mailan bi hitzordu na-

gusi izango ditu martxak: bata, ekainaren 30ean izango da, Istanbulen, Europako Emakumeen Nazioarteko Topaketak egingo baitira; eta bestea, urriaren 17an izango da, Kongoko Sud Kivu hirian, gatazka egoeran bizi diren emakumei elkartasuna adierazteko.

Euskal Herrian, martxaren lau aldarrikapen nagusiak hauexek dira: emakumeen aurkako bortizkeria salatzea, sexu eta ugalketa eskubideak aldarrikatzea, prekaritatea gaitzestea eta elikadura autonomiaren alde egitea.

Euskal Herriko emakumeen Mundu Martxako Plataforman hainbat talde eta sindikatu daude, horien artean Bizkaiko Emakumeon Asanblada, Bilgune Feminista, Andere Bidatz eta Hazparneko Emazteek Diote, besteak beste.

**Ordu asko**  
beharrean, etxeko lanetan, zaintza-lanetan...

**eta denbora gutxi**  
gizarte eta kultur jarduetarako, aisialdirako...

**Zentzuz eta berdintasunez banatu dezagun gure buruarentzat, lagunentzat, familiarentzat eta lanerako dugun denbora.**

**MARTXOAREN 8a. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**

**EMAKUNDE**  
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER  
Euzko Legeburuak eta Euzko Legeburuaren  
Euzko Legeburuaren 12. artikulua

**EMAKUME ELKARTEA**

EMAKUNEA  
LAGUNTZA, HEZTURA  
ETA ORRINTZETIKO  
ZERBITZUA

Isabel II, 7-7. B. Donostia  
E. 943-45 40 14  
emakumeelkartea@hotmail.com

**Gizarteko errekurtsuen informazioa**

**Emakumeen zerbitzu integrala**

**Ahalduntze taldeak**

**Tratu txarrak jasandako emakumeen talde terapiak**

**Aholkularitza juridiko eta psikologikoa**

**Laguntzaileak:**

Ciupuzkoako Foru Aldundia

Emakunde

# EMAKUMEAK USTIATEGIEN JABE IZATEKO BIDEAN

Emakume nekazarien eskubideak aldarrikatu nahi ditu EHNE sindikatuak, eta, horretarako, ustiategien titulartasun partekatua bultzatu nahi du, besteak beste.

Ustiategien iraupenerako ezinbesteko oinarria dira emakume nekazariak. Azken urteotan nekazaritzaren sektorea krisian dago, eta are gehiago krisi orokor bortitiz horren ondorioz. Horrek gogor astindu ditu sektore horretan ari diren langileak, batez ere emakumeak.

Soldata duin bat lortzeko zailtasun handiak dituzte krisiaren eraginez. Kontuan izan behar da sarritan familia osoa bizi dela soldata horretatik. Horren ondorioz, sektoretik kanpo beste aukera batzuk bilatu beharra dago, eta gehienetan emakumea izaten da nekazaritzari lotutako aparteko diru sarrera horren bila ateratzen dena.

Nekazaritza sektorean emakumeak nabarmentzeko lan egiten

segituko du EHNE sindikatuak 2010ean ere. Emakume horien lan eskubideak aldarrikatu nahi dituzte. Horrez gain, ustiategien titulartasun partekatua bultzatu nahi du sindikatuak, legeari, zerga sistemari eta gizarte segurantzari dagokionez. Emakumearen partehartze aktiboa bultzatu nahi dute, ez bakarrik ustiakuntzetan, baita nekazaritzari lotutako erakundetan eta erakunde sozialetan ere.

**Berdintasun** hitza ahoz aho badabil ere nekazaritza eta abeltzaintzan lanak egin eta banatzerako orduan, beste alorretan bezala dagoela dio EHNE sindikatuko zuzendaritza batzordeko kide eta berdintasun arloko arduradun Eva Lopez de Arroiabek. Beste sektoreetan bezalaxe nekazaritzan ere berdintasuna oraindik urrun dagoela dio. «Ustiategian lanak partekatzen dira, gero eta



**SOROAN.** Baserritar bat arbia biltzen. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

gehiago: produkzioa, burokrazia, merkaturatzea, eta abar. Baina etxeko lanetan oraindik berdintasunetik urrun gaude. Ez dute nahi-koa egiten etxeko lanak aurrera ateratzeko», esan du.

## Lana eta familia

Nekazaritza eta abeltzaintzan lana eta familia oso lotuta daudela eta banatzea oso zaila dela dio Lopez de Arroiabek. «Horrenbeste aipatzen den kontziliaziorik hemen ez dago. Hemen arazoak familieren parte dira, ezin dira banatu kanpoko lan batekin egiten den bezala. Ezin duzu lana etxetik kanpo utzi».

Nekazaritza guneetan emakumeek hartzen dute familiaren

zama guztia, eta bere gain hartzen dute adinekoren eta umeen zaintza, etxeko lanak, ukuiluko edo soroko lanak. «Sektoretik kanpo bizitza pertsonala eduki ahal izateko, mesedeak eskatu behar dituzu, gizarte laguntzak kaskarrak baitira, eta, hiriekin konparatuz gero, herriek eta baserriek desabantailak dituzte horretan».

## Egoera hobetu

Poliki-poliki emakumeen egoera hobetuz joan da. Lehen, emakumea gizonak emandakotik bizi zen, edo pentsio bat jasotzen zuen alargundutakoan. «Tamar garria da, baina horrela izan da orain arte. Baina nekazaritzan ere gauzak aldatuz joan dira, eta iaz Titu-

lartasun Partekatua Legea onartu zen», gaineratu du.

Titulartasun Partekatua Legearen arabera, emakumeak eta gizonak egoera berean izango dira ustiategietan. Negozioak dakartzan onuren jabe izango dira. «Oraingo esan dezakeguna da ustiategien errolda bat egiten ari direla Euskal Herrian, jakiteko zenbat pertsonak lortuko luketen titulartasun hori. Hori asko da, zeren orain arte asmoak besterik ez dira izan», azaldu du EHNE sindikatuko kideak.

Nekazaritza alorrean berdintasuna lortzeko baliabideak behar direla dio Lopez de Arroiabek. Horren haritik, garraioa, menpekotasun egoeran daudenei laguntzeko teknikarientzako laguntzak, adinekoentzako eguneko zentroak, haurrentzako haurtzaindegia eskatzen dituzte, besteak beste. «Horrekin aisialdirako denbora izango genuke emakumeok. Gehienetan zerbitzu horiek berandu heltzen dira gure sektoreri».

Emakumeak nekazaritza alorrean jarduteko prezio justuak behar dituztela dio, eta etorkizuna dagoela ikusi behar dute. «Emakumeok ez dugu amore ematen, borroka zaleak gara, eta gure ustiategiak eta gure familiak aurrera ateratzearen aldeko hautuak egiten ditugu». Orain gauzak oso zail daudela dio, eta esan du nekazaritza eta abeltzaintza egoera larrian daudela, eredu globalizatu eta produktibista baten menpe. «Pertsonetan edo elikagaietan pentsatzen ez duen eredu baten menpe gaude. Eredu horrek horiekin espekulatu besterik ez du egiten. Sektorearen etorkizuna bere emakumeen menpe ere badago».

Emakume langilearen nazioarteko eguna

# MARTXOAK 8



Errenterriako Udala

Emakumearen  
Eguna 2010



Etorkizuna  
Berdintasuna  
Menpekotasunik ez  
Euskal Herria  
Emakumeak  
Askatasuna